


# LUA

Legorretako Udal Aldizkaria

2016ko Iraila \_ **13**. zenbakia



- 2 Aurrez Aurre  
Ainara eta  
Eneko Garmendia
- 4 Ostegunetako Zinea
- 5 Ikastaroak
- 6 Erreserbak on line
- 8 Seguru baietz
- 9 Herritarren txokoa
- 10 Errezeta
- 11 Agenda

# AURREZ AURRE

Elkarrizketatzailea:

**Eneko  
Garmendia**



Elkarrizketatua:

**Ainara  
Garmendia**



2016ko urtarrilean joan zen Ainara Garmendia Indiara, bi urtez han lan egiteko asmoz. Irailean Legorretara bueltatzekoa da, astebete pasatzera, eta atzera Indiara joango da. Eneko Garmendia anaiak elkarrizketatu du.

## Egun on!

नमस्कार (Arratsalde on).

## Han arratsaldea da, noski (Legorretan 12:00ak eta Indian 15:30ak).

Bai, hemen orain hiru ordu eta erdi gehiago dira.

## Zergatik erabaki zenuen Indiara joatea?

Euskal enpresa batean Industria antolakuntzako ingeniari moduan hiru urtez lanean ibili ostean, hainbat euskal enpresatan lan egiteko elkarrizketak egitean, atzerriko lan esperientzia izateak izugarritzko garrantzia zuela ohartu nintzen.

Eusko Jaurilaritzaren Nazioartekotze Programa unibertsitateko ikaskide baten bitartez ezagutzen nuenez, aukera hau probatzea erabaki nuen.

Hori dela eta, enpresa arloko nazioartekotze prestakuntza izan nuen iaz Euskal Herriko Unibertsitatean, eta 2016ko urtarrilean Indiara heldu nintzen Euskal Garapen Agentziak Mumbain daukan bulegoan lan egiteko.

## Zer moduz bizitzen da Indian?

Oso ondo. Indian bizitzea ez da erraza; kultura, ohitura eta pentsatzeko era ezberdinak baitituzte, eta esfortzu handia eskatzen baitu beraien moduan pentsatzeak bizikidetzatza errazteko eta elkar ulertzeko. Hala ere, ondo ohitu naiz horretara, nahiz eta oraindik ulertzen ez ditudan gauza batzuk egon.

Egia da kontrastez beteriko herrialdea dela, baina oso interesgarria. Gorabeheraz beterikoa, nahiz eta batzuetan esperientzia gogorak pasatzen diren.

Enpresa munduari dagokionez, emakume izateak berezitasunak ditu, baina eginez ikasten da, eta hala izan da.

Pertsonalki zailena Indiako gizartearen errealitate latza onartzea eta elkarrekin zein gogorak diren ikustea da. Ez dut uste inoiz ohituko naizenik eguneroko bizitzan hauteman daitekeen errespetu faltara eta kalean aurki daitezkeen kontrasteetara.

## Han, hemen bezala, aitzakia segituan bilatzen al dute jandanean aritzeko?

Hemen ia egunero ospakizun ezberdinekin topo egin dezakezu kaleko txoko ezberdinetan. Erlijio bakoitzak bere erritual eta ospakizunak ditu, eta edozein aitzakia nahikoa da kalean familiarekin zein lagunekin ospatzeko; janariarekin (begetarianoa /

ez-begetarianoa), edariekin (alkohola, erlijioaren arabera), musikarekin, hennarekin, kandlekin, loreekin eta kolo-rezko telekin apaindutako txokoetan.

Indiako ezkontzei dagokienez, milaka gonbidatu izan ditzakete, eta 2-6 egun irauten dute. Ezkontzako erritualak erlijioaren arabera dira, eta janzkera ere aldatu egiten da. Ezkontza aurreko asteetan dantza ezberdinak prestatzen dituzte lagunek eta familiako kideek Mehndi day (Henna egunean) eta Sanjeet-en (ezkontza aurreko ospakizunean) dantzatzeko.

### **Hango janarietara ohitu al zara? Edota ohitzerik ba al dago? Plater berezirik?**

Hasiera batean, dena pikantea eta zapore berekoa zela iruditzen zitzaidan. Baina, denbora pasatu ahala, pikantera ohitzen zara, eta zapore ezberdinak dasta ditzakezu.

Orain pikantera ohitu naizenez, plater dezente ditut gustuko: Bhajija Pao, Palak Paneer, Butter Chicken, Berry Pulao, Green moong, Daal, Chana Masala, Jeera Aloo, Chicken Tandori. Indiako ogietan gustukoena: Cheese Naan. Edariak: Lassi eta masala chai.

### **Kanpora joateak zer eman dizu? Zeren falta sumatzen duzu?**

Etetik ia 8.000 kilometrotara egoteak erosotasunetik aterazera behartzen zaitu: hizkuntza berria, ohitura berriak... Bide horretan burua asko zabaltzen da, eta asko ikasten da. Kanpora joateak sorterrian duzuna baloratzeko aukera ematen dizu: zuretzat ohikoak diren gauza asko ez dituzte edozein tokitan aurkituko.

Momentu txikien falta sumatzen dut gehien: familiarekin bazkaltzea, kuadrillarekin poteatzea... eta Indian egonda... okela! Haragi ezberdinak aurki ditzakezu, baina... ezin da konparatu!

### **Laster Legorretan izango zara; zer da lehenengo egingo duzuna?**

Uff... gauza asko: txuleta on bat jan, familiarekin eta kuadrillarekin egon eta abar.

### **Zer aldatuko zenuke?**

Ezer ez. Niretzat, askotan, zaila bada ere etxetik kanpo egotea, izugarriko esperientzia pertsonala eta profesionala izaten ari da. Ni ez nintzateke pertsona bera izango esperientzia hau bizi izan ez banu.

## BIZTANLERIA TASA:

<b>India:</b>	1.251 milioi biztanle baino gehiago ditu.
<b>Mumbai:</b>	(Ni bizi naizen hiria): 22 milioi biztanle baino gehiago ditu.
<b>Legorreta:</b>	1.483 biztanle ditu.



# OSTEGUNETAKO ZINEA

Badira urte batzuk Ostegunetako Zinea martxan jarri zela Legorretan. Eraikinaren egoera txarra zela medio, bertan behera utzi behar izan zen bolada batez, baina, eraberritze lanen ondoren, irailetik aurrera berriro hasiko da Ostegunetako Zinea. Antolatzaileen artean, berriz, belaunaldi aldaketa egon da.

Igor Larreak eta haren kuadrillak izan zuten ardura urte batzuetan. Hala gogoratu ditu hasierak: "Legorretan txikitatik ezagutu dugu parrokiako zinema. Lehen, proiektioak botatzeko talde handi baten beharra egoten zen. Gure kuadrillakoen-gana etorri zitzaizkigun, eta lagunduko al genien galdetu ziguten". Eta hala hasi ziren zeregin horretan. "Lehenengo urteetan, takilan sarrerak saldu, astelehenetan zinean proiektatutako filma eskuz errebobinatu, linterna hartu eta aretoko ikusleei siltasuna eskatu, eta beste hainbat lan txikiren ardura hartzen joan ginen. Ondoren, zine berriko sarreran dagoen Ossa proiektorearen funtzionamendua ikasten hasi ginenerako zinea itxi egin zen, ekonomikoki ez zelako jasagarria. Ez dugu uste Gipuzkoan

Legorreta baino txikiagoa zen beste herri-rik bazegoenik pelikulak zine formatuan proiektatzen zituenik".

Urte gutxi batzuetara, ordea, berriro ekin zioten. "Proiektore digital bat ekarri, eta VHS formatuan pelikulak botatzeko preparatu zuen udalak zinema. Horrela, guregana jo zuten ea aurrerantzean zinearen programazio eta proiektioaren ardura hartu nahi al genuen; guk baiezkoa esan, eta horrela ekin genion Ostegunetako Zineari", azaldu du Larreak.

Proiektore digital harekin beste urte batzuk egin ostean, atzera utzi behar izan zen bertan behera, eraberritze lanak egiten ziren bitartean. Orain, Herri Antzokia berriturik, gaztetxeko kide batzuek hartuko dute Ostegunetako Zinearen ardura, Itoiz Alustiza, Eric Agirre eta Dani Cardosok, hain zuzen. Gaztetxean aspalditik dute filmak jartzeko ohitura: "Noizbehinka, gaztetxean ibiltzen den jendearentzat filmak jartzen genituen, eta jendeak gustura ikusten zituen. Horretarako gela bat ere egokitu genuen, proiektio-

rea erabiliz filmak ondo ikusi ahal izateko. Hirurok aritzen ginen ia beti, eta, gustu ezberdina dugunez, genero ezberdinetako filmak aukeratzen genituen".

Herri Antzokia berritu baino lehenago ere jarri ziren harremanetan udalarekin, eta orain, berritu ondoren, haiek hartuko dute Larrea eta konpainiaren lekukoa. "Iruditzen zitzaigun herriko zinemasaleentzat ekintza polita zela Ostegunetako Zinea, eta antzoki berriari erabilera emateko modu egokia zela". Uda aurretik ere eman zituzten film batzuk, proba gisara. "Jendeak ondo erantzun zuela ikusita, irailean berriz ekingo diogu, ostegunetan filmak emanez".

Irailetik aurrera, beraz, ostegun gauetan Herri Antzokian zinemas gozatzeko aukera izango dute legorretarrek. Bai Larreak eta bai Alustizak, Arregik eta Cardosok ere herri-ritar guztiak animatu nahi dituzte. Larrea: "Badakizue, hemendik aurrera etxean egitiko bokadiloa hartu eta zinemara joateko gonbita egiten dizuegu, urte askoan jarrai dezan Ostegunetako Zineak!".

# IKASTAROAK

## Euskara

(etorkinentzat / para inmigrantes)



Iraupena: 60 ordu; 30 egunez, bakoitzean bi ordu.  
Duración: 60 horas. 30 días de dos horas.

Prezioa: 19 €

Izen-ematea: irailaren 16ra arte, udaletxean.  
Inscripción: hasta el 16 de septiembre, en el ayuntamiento.

Pertsona kopurua: gutxienez 6.  
Cuántas personas: como mínimo 6.

Hace tiempo que se puso en marcha el Cine de los Jueves. Aunque se tuvo que dejar de organizar debido al mal estado del edificio, ahora en septiembre, y, después de la reforma realizada, se volverá a retomar.

Igor Larrea y su cuadrilla fueron, durante un tiempo, los responsables de dicho evento.

Según comenta éste: "No creo que hubiera en todo Guipúzcoa pueblo más pequeño que Legorreta que proyectara en formato cine".

Más tarde el Ayuntamiento puso un proyector digital para poder echar las películas en VHS y les preguntó si querían seguir con la programación del cine y, así, dió comienzo el Cine de los Jueves.

Ahora, con la reforma del edificio, serán algunos miembros del Gaztetxe los que cogerán el relevo para organizar dicho ciclo de cine. Concretamente: Itoiz Alustiza, Eric Arregi y Dani Cardoso. Antes de verano ya probaron con algunas películas y viendo la buena acogida que tuvieron pensaron que era buena idea retomar la iniciativa del Cine de los Jueves. Como bien comenta Larrea: "En adelante al cine con el bocadillo de casa, y que siga así muchos años el Cine de los Jueves."

## Zumba



Irailaren 13tik ekainaren 20ra  
Desde el 13 de septiembre al 20 de junio

Eguna eta ordua: asteartean eta ostegunean, 09:20etatik 10:20etara goizez edo 18:20etatik 19:20etara arratsaldez (astean bi ordu, beraz: nahi izanez gero, aukera dago goizekora edo arratsaldekoa txandaka joateko).  
Día y hora: martes y jueves, de 09:20 a 10:20 a la mañana o de 18:20 a 19:20 a la tarde (dos días a la semana; se puede ir al ensayo de mañana o de tarde).

Prezioa: hilean 25 € / mes

Izen-ematea: kultur etxean.  
Inscripción: en la casa de cultura.

Pertsona kopurua / Cuántas personas: 15

## Hipopresiboak



Urritik ekainera  
Desde octubre hasta junio

Eguna eta ordua: ostiraletan, 10:30etan eta 14:45etan  
Día y hora: los viernes, a las 10:30 o a las 14:45

Prezioa: 12 saio, 90 € / 12 sesiones, 90 €

## Pintura



Irailaren 6tik ekainera  
Desde el 6 de septiembre hasta junio

Eguna eta ordua: asteartean, 18:30etatik 20:30etara.  
Día y hora: los martes, de 18:30 a 20:30.

## Pilates



Irailaren 19tik ekainaren 19ra  
Desde el 19 de septiembre al 19 de junio

Eguna eta ordua: astelehen eta asteazkenetan, 18:30etatik 19:30etara.  
Día y hora: lunes y martes, de 18:30 a 19:30.

Prezioa: hilean 35 € / mes  
Izen-ematea: irailaren 13ra arte, kultur etxean.  
Inscripción: hasta el 13 de septiembre, en la casa de cultura.

Pertsona kopurua: gutxienez 8, gehienez 12.  
Cuántas personas: mínimo 8, máximo 12.

## Saloiko dantzak



Irailatik ekainera  
Desde septiembre hasta junio

Eguna eta ordua: asteartean, 21:15etatik 23:00etara.  
Día y hora: los martes, de 21:15 a 23:00.

Prezioa: hilean 10 € / mes

## Yoga



Irailan erabakiko da ikastaroa egin edo ez  
Se decidirá en septiembre si se lleva a cabo o no

# ERRESERBAK ON LINE

Aurrerantzean, udaletxera joan behar izan gabe, ordenagailutik edo eskuko telefonotik bertatik eskatu ahal izango dira udalaren azpiegitura eta materialak. Legorreta.eus atarian sartu, eta hortxe dago erreserben atala: Azpiegiturak eta materiala erreserbatu on line. Bertan klik egin, eta zuzenean ager-

tuko da erreserben orrialdea. Erreserba egin ondoren, erabiltzaileak mezu bat jasoko du, ondo egin duela egiaztatzeko. Ondoren, udalak eskaria jaso eta onartzen duenean, beste mezu bat jasoko du erabiltzaileak, onartu zaiola jakiteko. Gainera, ikusgai egongo da eskariak zein egunetarako egin diren.

*En adelante, se podrá realizar la reserva de las diferentes infraestructuras y materiales online, sin acudir al ayuntamiento. Para ello, es suficiente entrar en la web Legorreta.eus y clicar el apartado habilitado para ello. Una vez realizada la reserva, el usuario recibirá una notificación del ayuntamiento.*



# Udal zerbitzu telematikoak



Beste hainbat aukera ere eskaintzen ditu Legorreta.eus atariak. Besteak beste, udalaren tramitazio eta gestioak on line egiteko aukera. Udal zerbitzu telematikoak, hain justu, udal administrazioa herritarrari internet bidez gerturatzeko modua dira.

Atal hauek ditu:

- Biztanleen errolda: agiriak

- Zerbitzu honen bidez, erabiltzaileak udaleko erroldan dituen datuak kontsulta ditzake, baita haren historia ere. Horrez gain, udalak digitalki sinatutako erroldatze agiriak lor daitezke. Agiri horiek legezko balioa dute.

- Tasak eta zergak: kontsulta eta ordainketa

- Zerbitzu honen bidez, tasak eta zergak kontsultatu (ibilgailuak, ura, zaborrak...), ordainagiriaren egoera ikusi eta ordainketak egin ditzake erabiltzaileak udaleko zergadun gisa.

- Eskariak eta jakinarazpenak

- Aukera honek bidea ematen du Internet bidez udalarekin harreman zuzena izateko. Eskaera sarrera erregistro elektronikoan aurkez daiteke udalera joan gabe. Erregistro hau inprimaki baten bidez egiten da. Inprimaki horretan gehienezko 256 karaktereko testu labur bat sar daiteke, eta hainbat dokumentu erants daitezke: testuak, irudiak eta beste. Tramitearen egiaztatzea eskura daiteke.

- Beste zerbitzu batzuk

- Espedienteak kontsultatu, tramiteak egin...

Horretarako, identifikatzaile digitala behar da. Erabiltzaileak Nortasun Agiri elektronikoa erabil dezake, eta, bestela, udaletxean bertan eska daitezke erabiltzaile izena eta pasahitza.

*El portal Legorreta.eus ofrece también la opción de realizar otros trámites municipales online. Para ello, es indispensable un identificador digital, como el Documento Nacional de Identidad. También es posible solicitar el nombre de usuario y la contraseña que se requieren en el ayuntamiento:*

- *Padrón municipal: El usuario puede consultar los datos como el historial que constan en el padrón municipal, además de obtener el padrón firmado digitalmente por el ayuntamiento. Estos documentos tienen validez legal.*
- *Impuestos y tasas: Consulta y pago.*
- *Peticiones y avisos: Facilita la comunicación directa para con el ayuntamiento mediante un formulario que se rellena.*
- *Otros: Consultar expedientes, llevar a cabo diferentes trámites...*

# 'SEGURU BAIETZ'

Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak antolatzen duen sensibilizazio kanpaina bat da 'Seguru baietz', mugikortasun seguru lantzeko eta espazio publikoa hobetzeko helburuz egiten duena.

Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako neska-mutilentzat izango da, bai eta haur txikiagoak dituzten gurasoentzat ere; izan ere, ibilgailuetan haurrak lotzeko sistemei buruzko informazioa emango dute, eta erakustaldi bat ere egingo dute; horrez gain, liburuxka batzuk ere banatuko dituzte.

LHko ikasleek, berriz, bide segurtasunarekin zerikusia duten jolas batzuetan jolasteko aukera izango dute, ordenagailu bidez, eta horien bitartez jasoko dituzte azalpenak.

Kanpaina hau irailaren 23an izango da, herriko plazan, arratsaldeko bostetatik zazpietara.



*La campaña por una movilidad segura que se desarrolla bajo el lema 'Seguru baietz' y que promueve la Dirección de Tráfico del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco llegará a Legorreta.*

*Tanto los menores como sus padres tendrán la posibilidad de recibir diversa información relativa a los diferentes sistemas de retención infantil existentes para los coches. Además, tendrán la opción de aprender más sobre la*

*movilidad segura mediante diferentes juegos que se organizarán. También se repartirá material sobre el tema.*

*Todo ello será en la plaza el próximo 23 de septiembre en horario de 17:00-19:00.*



## OINEZKOENTZAKO BIDEA

Etexzarreta auzoan, Joxe Iturrioz kalearen paraleloan dagoen bidea oinezkoentzat bakarrik izango da aurrerantzean. Izan ere, orain arte ibilgailuak eta oinezkoak, biak ibiltzen ziren bide horretan, eta arriskutsua zen, espaloirik ez baitzegoen. Eskolarako eta parkerako bidea izanik, oinezkoei lehentasuna ematea erabaki da, ibilgailuek bai baitute tokia Joxe Iturrioz kalean.

*En adelante, la calle paralela a la de Joxe Iturrioz será peatonal. Anteriormente circulaban tanto peatones como vehículos pero al no haber arcén suponía un riesgo que se pretende evitar con esta solución.*



# BEROZTEGI (Z LETRAZ) AUZOARI BURUZ


Gaur egun Legorretako historia diren (enpresa bezala desagertu direlako) baina 1960-70-80ko hamarkadetan jende ugari erakarri zuten, Echezarreta paper lantegiaren, San José mehatzearen, karobiaren eta abarren eraginez, auzo honetan 30 sendi bizitzera ere iritsi zen: Etxe-aundin (batzuk Beroztegi izena baserri honi jartzen diote), Jildegín, Kastilla-zarren eta Ermasagastin etxebizitza ugari zeuden.

Beroztegi auzoa Santa Marina ermitaren inguruan eraikia da, eta Zubin-errekak markatzen du baserri/lursail bakoitza Legorretako sailean edo Itsasondokoan dagoen: Lasarte eta Zubin (ura beheara datorren eran, eskuin aldean daudenak) Itsasondokoak dira, eta Kortatu, Olalde, Aldaola eta auzoaren multzoan daudenak (ezker aldean daudenak), Legorretakoak.

baitzen: joko-zelaiaren erdian postea, ate bateko zelaiaren zabalera beste atearen erdia baino gehixeago bakarrik, Zubina-erreaka bera alboko marra gisan, sasia eta harkaitza beste alboan...

Auzoaren izenari dagokionez, gure aitonak, Francisco Melchor (Patxi) Lasa Iturrizak, Lasa zerrategia martxan jarri zuenak –geroago bere seme Juan Inazio gure aitak eta Joxe Antonio osabak jarraitu zuten–, sartu zidan auzoaren izenarekiko kezka: nahiz eta kaleko jendeak Berostegi (s hizkiaz) ahoskatu, aitonak beti esaten zigun hori okerra zela, Beroztegi (z hizkiaz) zela izen zuzena.

Kezka hori Udalean behin baino gehiagotan planteatu izan



Santa Marina ermita hau izaten zen igandero, mezaren aitzakian, auzoko biztanleen biltoki: meza entzun ondoren, tartetxo bat pilotan aritu (emakumeak edo etxera izerditan joan nahi ez zutenak atarian, ikusle gisan) ermitaren arkupean bertan (hango txoko txiki, koskadun, bihurri hartan ikasia dugu pilotan dakigun apurra), ondoren Errotan zegoen tabernan trago bat hartu eta buelta etxera, horixe izaten zen igandeko plana gerra ondorengo garaietan.

Beste toki ezagun bat ere bazuen auzoak: futbol-zelaia, Legorretako bakarra. Gaur egun Pazasa-ren pabiloia dagoen tokian zegoen. Herriko ia edadean aurrera doazen gizonzkoek, gehienbat, ondo gogoratuko dute, aski xelebrea

banuen ere, tartean herriari buruzko liburua idatzi zuen Antxon Aguirre Sorondori –honek baserri izen askoren aldateta proposatu zuen–, ez nuen aurrerabiderik topatu. Saiakera horien artean, Euskaltzaindira ere jo nuen, eta bertatik erantzun garbia jaso ere bai: aitonak zioena zuzena zela; hau da, izen zuzena Beroztegi dela (z hizkiaz), eta s hizkiaz ahoskatze hori okerra dela.

Eskaera Udalari botata dago, kale izendegian auzoaren izena zuzen jar dezan. Oraingoan lortuko dudalakoan, nahi duenarentzat, hor nago auzoari buruzko argibide gehiago emateko.

*Jose Mari Lasa Sarasola*

# ERREZETA

ALDAPA HAUNDI KULTUR ELKARTEA

## UKONDOA PATATA PUREAREKIN

**Denbora:** 60 minutu

**Zailtasuna:** Erraza

**Plater mota:** 2. platera

**2 pertsonarentzat**

### OSAGIAK

- 2 ukondo handi, egosiak (1.200 g)
- Garagardoa (gustuko edozein)
- 500 g patata (zorrokoak)
- Gurina 100 g
- Litro erdi esne
- Gatza



### NOLA PRESTATU:

Lehenik eta behin, labea 180 gradutan daukagula ukondoa sartuko dugu bertara. Hurrengo pausoa patata purearekin hastea izango da. Eltzea sutan jarriko dugu, eta esnea botako dugu lehenik; behin irakite puntura iristen denean, su baxuan jarriko dugu, eta zorroko patata botako diogu, ondo nahastuz. Azkenik, gatza eta gurina botako dizkiogu; horiek ere ondo nahastu, eta purea prest edukiko dugu. Behin ukondoak 30 minutu daramatzanean labean, gaintik garagardoa botako diogu, eta berriro ere labean utziko dugu beste ordu erdiz. Denbora pasatzean ukondoa labetik atera eta platerean jarriko dugu, aldamenean patata pureaz lagunduz.

Aurtengo garagardo azoka badator, eta ea inbidia pixka bat sartzen di-zuegun.

*On egin!*

## IRAILA

**12-18**

**Jubilatu Astea**

**17** Garagardo Azoka

Frontoian

**18** Jubilatuen bazkaria

14:30 / Frontoian

**23** 'Seguru baietz'  
zirkulazio kanpaina haurrentzat

17:00 - 19:00 / Plazan

**28** Ipuin kontalaria

18:00 / Udal liburutegian

## AGENDA

## URRIA

**15** Hip Hip Urri: Itsasondotik  
Legorretara ibilaldia familientzat

**23** Bertso saioa Jainkoenean:  
Andoni Egaña eta Alaia Martin

**24 - 30**  
Zientzia Astea



Irailean izan ohi da Legorretan jubilatuen astea; hirugarren astean, oro har. Ekintza ugari antolatzen dituzte aste osoan, hitzaldiak, ibilaldiak, meriendak... eta bazkaria egiten dute azken egunean, igandean. Aurrez jokaturako karta jokoetako txapeldunei saria ematen diete egun horretan. Irudian ikus daitekeenez, karta jokorako ohitura eta abilezia aspalditik datorkie. Udaletxea berritu aurretik jubilatuen taberna zaharrean ateratakoa da argazkia, eta karta jokoan irabazle izandako kuadrilla ageri da bertan.